



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**



**Deiadar Mendien Eguna**  
Día de los Montes Bocineros

## **Prentsa-oharra**

DEIADAR MENDIEN EGUNA

### **MILA LAGUN INGURU SOLLUBEN, BATZAR NAGUSIRAKO DEIAREN EKITALDIAN**

**Bilbon, 2012ko maiatzaren 13an.** Mila lagun inguru batu dira gaur Sollubeko tontorrean, Deiadar Medien bederatzigarren edizinoan parte hartzeko gogotsu. Batzar Nagusiek jaiegun bihurtu dabe ekitaldi hori eta “daborduko ibilbide klasiko bihurtu da Bizkaiko mendizaleentzat eta euskal tradizioen zaleentzat”. Horixe esan dau Ana Madariaga Batzar Nagusietako Lehendakari andreak eguerdi bueltatxuan Dei adarrotsa entzun eta gero.

Batzar Nagusiek eta Bermeoko Sollube 707 Mendizale Taldeak alkarlanean antolatutako mendi-ibilaldia Bermeoko Taraska plazan hasi da goizeko 9:30etan. Mendizale taldeak itsasoaren parean hasi dira ibiltzen eta goizeko 11:30 aldera heldu dira Sollube ganera, 676 metroko garaierara. Tortorrera heldutakoan Batzar Nagusietarako dei tradizionala egin da, Erdi Aroan egiten zan moduan, adarrotsaren bitartez.

Batzar Nagusiek 2004. urteaz geroztik antolatzen dabe mendi-ibilaldi hori, urte horretan bete ziran-eta 25 urte Batzar Nagusiak berreskuratu genduzanetik. Urteotan, bada, adin guztietako milaka bizkaitar bildu dira urtero bost Deiadar Mendietarikoren baten (Gorbeia, Kolutza, Sollube, Oiz eta Ganekogorta) adarrotsa entzun eta Gernikako Batzar Nagusietarako deia era tradizionalan jasoteko.

Tontorrean egozala, Sollube 707 Taldeko ordezkariak deia egiteko erabilitako adarra emon deutso hurrengo urtean Oiz mendian egingo danaren antolatzaile izango dan mendi-taldearen ordezkariari. Batzar Nagusien ordezkariak be izan dira bertan, esaterako Ana Madariaga Lehendakaria, Jon Andoni Atutxa Batzar Nagusien Mahaiko Idazkaria, Unai Rementeria Batzarkide eta Mundakako Alkatea eta Ana Esther Furundarena, Mirene Bidaguren, Idoye Errazti eta Fernando Larrinaga batzarkideak.

Deiadarra entzun eta ohorezko aurrekuaren ostean, Batzar Nagusietako Lehendakariak eskerrak emon deutsez ibilaldian parte hartu dabene guztiei —edizinerik jentetsuenetakoa izan da hau— eta gogotara ekarri dau Europako lehenengoetariko erakunde demokratikoak diran Batzar Nagusiek tradizino hori 2004. urtean berreskuratu ebela, “Gernikako Batzar Nagusietan parte hartzeko herritarrei egiten jaken dei tradizionala gomutatzearren”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**



**Deiadar Mendien Eguna**  
Día de los Montes Bocineros

Tontorretik hur egin dan jaialdiagaz amaitu da ekitaldia. Bertaratu diranek oparixua eta hamaiketako izan dabe inguruko produktuakaz (bonitoa, antxoak eta txakolina), euskal musika eta dantza artean.

---



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**



**Deiadar Mendien Eguna**  
Día de los Montes Bocineros

## **Nota de prensa**

### **DIA DE LOS MONTES BOCINEROS**

## **UN MILLAR DE PERSONAS CORONAN EL SOLLUBE PARA PARTICIPAR EN LA TRADICIONAL LLAMADA A JUNTAS**

**Bilbao, a 13 de mayo de 2012.** Las ganas de participar en la tradicional llamada a Juntas han animado hoy a un millar de personas a subir a la cima del Sollube para tomar parte en la novena edición del Día de los Montes Bocineros, una jornada que las Juntas Generales de Bizkaia han convertido ya en una marcha “clásica entre los amantes de la montaña y las tradiciones vascas” como ha declarado la Presidenta de esta institución, Ana Madariaga, después de escuchar el tañir de los cuernos.

La marcha montañera, organizada por las Juntas Generales en colaboración con el club de montaña Sollube 707 de Bermeo, ha partido a las 9:30 horas desde la plaza Taraska de la localidad marinera. Desde este punto a nivel del mar, los participantes han ido alcanzado los 676 metros del Sollube a partir de las 11:30 horas divididos en grupos. Ya en la cumbre, se ha realizado la tradicional llamada a las Juntas Generales desde la cima, como se cree se hacía en tiempos de la Edad Media.

Las Juntas Generales de Bizkaia organizan esta jornada desde el año 2004, coincidiendo con el 25 aniversario del restablecimiento de esta institución en la época moderna. Desde ese año, vizcaínos y vizcaínas de todas las edades han podido escuchar, desde alguna de las cinco cimas bocineras (Gorbeia, Kolutza, Sollube, Oiz o Ganekogorta) , el sonido del cuerno, emulando la llamada ancestral para reunirse en Gernika.

En la cumbre, el representante de Sollube 707 ha hecho entrega del cuerno, realizado de forma expresa para este día, al representante del club organizador de la subida del próximo año en el Oiz. En representación de las Juntas Generales han acudido su presidenta, Ana Madariaga, el secretario de la Mesa de las Juntas, Jon Andoni Atutxa, el juntero y alcalde de Mundaka, Unai Rementería, y las apoderadas Ana Esther Furundarena, Mirene Bidaguren, Idoe Errazti, así como el juntero Fernando Larrinaga.

Tras el tañir del cuerno y el auresku de honor, la presidenta de las Juntas ha dado las gracias a los asistentes en la subida –una de las ediciones más multitudinarias- y ha recordado que las Juntas Generales, una de las primeras instituciones democráticas europeas, recuperaron esta tradición centenaria en el año 2004 con la idea de “recordar la llamada tradicional a la participación ciudadana que se realizaba para convocar los plenos de Gernika”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**



**Deiadar Mendien Eguna**  
Día de los Montes Bocineros

La jornada ha concluido con una fiesta celebrada cerca de la cima. Los asistentes han recibido un pequeño obsequio por su participación al mismo tiempo que disfrutaban de un pequeño *hamaiketako*, con productos típicos de la zona (bonito, anchoas y txakoli), y de música y danzas vascas.